

## Herriko gaztetxoek zuhaitz eguna ospatu zuten

Haritzak eta urkiak landatu zituzten Brunet mendiko hegalean

Martxoaren 21ean ospatzen da Basotzeraren Munduko Eguna. Ekimenarekin bat eginenez, Ingurumeneko sailak XVIII. Zuhaitzaren Eguna antolatu du.

Atzo, herriko gaztetxoek txanda izan zen. Eguraldia lagun, Landaberri ikastolako LH6 eta Sasoeta-Zumaburuko ikastetxeko LH3 mailako haurrek Brunet mendiko hegalean txangoa egin zuten. Bertan astigar, pago eta haritzaren baso autoktonoa sortzen ari da eta ernamui hauekin osatzen saiatuko dira.

### Landaketa

Eneko Urdanpilleta Lasarte-Oriako lorezainen buruaren azalpenak adi jarraitu ostean, taldeak egin, aitzurra hartu eta haritz eta urkiak landatzen hasi ziren ia atsedetik gabe.

Hamaiketakoarekin indarrak berritu eta goiza bukatze-

rako 100 ernamui landatu zituzten herriko gaztetxoek.

Era honetara, Ingurumeneko sailak, generazio berriak hezi nahi ditu gure basoak zaintzeko.

### Helduak apirilaren 7an

Baina ez dira haurrak aitzurra eta lurra eskuetan izango dituzten bakarrak, apirilaren 7an helduen txanda izango baita.

Ingurumen sailetik azaldu dugutenez, Helduen Heziketa Iraunkorreko Zentroko eta Euskaltegiko ikasleak, Erretiratuaren Elkartearen kideak eta animatzen den orok beste 50 bat ernamui landatuko dituzte.

Landaketa honetan parte hartu nahi dutenek Ingurumen sailarekin harremanetan jarri daitezke KIUB-eko 943 36 16 05 telefono zenbakia- ren bidez, astelehenetik ostiralera 9:00etatik 13:00etara. •



Landaberri eta Sasoeta-Zumaburuko ikasle gazteek adi jarraitu zituzten Eneko Urdanpilletaren azalpenak.



Azalpenaren ostean, landaketa. Trebatutako lorezainak ziruditen eta ia atsedetik gabe 100 ernamui landatu zituzten.



Buruntzaldeko enpresek euskaraz jarduteko eman ditzaketen urrats berriak /4-5

### KIROLA 6

Xabier eta Mikel Arrutiren taldeak maila ona eman zuten Tamesis ibaian betanoen arraun lehiaketan



Bihar, larunbata ordua aldatu behar da, goizeko 02:00etan 03:00ak izango dira




ELEKTRIZITATEA  
ARREGUI

- Material elektrikoak
- TB/Hi-Fi
- Argiak
- Instalazio elektrikoak
- Etxetresna elektrikoak



Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA



ADURIZ DE LASARTE S.A

Loidi kalea 3 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 361278

**Zorion-agurrak**



**Noelia**

Zorionak eta hemeretzi muxu handi familiar partetik. Txintxo ibili, jejeje!



**Anartz**

Aupa! Zure zazpigarren urteurrena primeran ospatuko dugu. Gurasoen partetik.



**Aimar eta Sergio**

Zorionak bihurritxok!! Txokolatzeko bi muxu eta 6 muxu goxo familia guztiaren partetik.



**Amane**

Zoriona Amane famili guztiaren partetik. Muxu handi bat!



**Andrea**

Zorionak zure bigarren urtebetzean. Zure familiar partetik.



**Xuar**

Zorionak zuri... 9 muxu handi famili guztiaren partetik.



**Nahia**

Zorionak famili guztiaren partetik. Muxu handi bat!



**Alaitz**

Zorionak 9. Urtebetzean eta muxu handi bat familiar partetik.



**Isidoro**

Zorionak 20aren partez! Sole, Jesus, Isi, Cri, Itzi, Pili, Oscar, Christian, Arkaitz, Janire, Gorka, Johana, Saioa.



**Jose**

Milaka zorian aitatz. Asko maite zaituzten amatxi, Endika eta Julen. Hoberena zara. Muxuk



**Oxan**

Zorionak! Badakik afitan argazki kamara arrisksua dela! Eutsi urte maratonianoari!



**Irati Qing**

Zorionak gurasoen eta aitona-amonen partetik. Ondo pasa!!

**Guardiak**

**Ostrala, 27**

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

**Larunbata, 28**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Igandea, 29**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Astelehena, 30**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Asteartea, 31**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Asteazkena, 1**

Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

**Osteguna, 2**

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

**Telefonoak**

**Osasuna / Larrialdiak**

Osasun Zentroa ... 943 007960  
DYA ..... 943 464622  
Gurutze Gorria ... 943 363953  
Udaltzainak ..... 943 362442  
Ertzaintza ..... 943 288888  
SOS Deiak ..... 112

**Udala**

Erregistroa ..... 943 376055  
Euskarako Zerbitzua 943 376184  
Kiroldedia ..... 943376182  
Kulturetxea ..... 943376181  
Bakezko epaitegia ... 943371629  
Zerbitzu Sozialak ... 943376179  
Zentro Zibikoa ... 943363958  
KIUB ..... 943361605  
Udal euskaltegia ... 943361621  
Obrak eta zerbitzuak ..... 943 376180

**Jaiotzak**

Asier Matute Palma, martxoaren 19an  
Aaron Jimenez Peña, martxoaren 19an  
Maren Egurbide Mitxelena, martxoaren 18an  
Aimar Tantos Cascos, martxoaren 12an  
Iker Gómez Almagro, martxoaren 7an  
Befat Martínez Rodriguez, martxoaren 7an  
Axular Miguelez Arruti, martxoaren 3an

**Heriotzak**

Jose Luis Sánchez Prieto, martxoaren 16an 41 urte zituela

**Azoka txikia**

**Eskaintza inmobiliarioak**

• Ezcaray-en duplex bat saltzen da. Erreka ondoan dago, igerilekua daukan urbanizazioan. 3 logela ditu eta etxea jantzita dago. la berria.  
Tel.: 652 774 679.

• Garaje itxia alokatzen da Pablo Mutiozabal kalean, Urdaneta eraikinean. Harremanetarako zenbakia, 943 370 749.

• Ezcaray-en duplex bat alokatzen da. Igerilekua daukan urbanizazioan dago, oso paraje ederrean. 3 logela ditu.  
Tel.: 676 910 566.

**Salerosketak**

• Landak:Vieux Boucau-n (Le Boulanger urbanizazioan) lau pertsonentzako estudio bat alokatzen da Aste Santuan eta Pazko astean.  
Tel.: 943 370534. gauze.

• Orbea markako bizikleta salgai; Gurpilak "kisyrium elite"; Biela "simano 105"; beste osagaiak "ultegra"; Horkilla eta eserlekua-ren tija karbonozkoa. Neurria: 51. Prezioa: 700 euro.  
Tel.: 605763341 (Iñaki).

• Auto bat daukat salgai. Suzuki Vitara 1900 markakoa. Diesela, 1999koa, 178.000 kilometro eginak. Deskapotablea, aluminiozko llantak eta defentsa. Okasiokoa. Deitu 616 333 017 edo 666 116 333 telefono zenbakira.

• Bizikleta urdina salgai. Monty markakoa, 5-9 urteko haurrentzat. Bikain dago, ez du inongo akatsik. 60 euro bizikletaren truke, eta haurrentzako bi txirrindulari jantzi oparitan. Deitu 627 358 898 telefono zenbakira.

• Mobil home bat saltzen dugu. 11x4 metro, berria eta luxuzkoa. Lizarrako kanping-ean partzela pribatua. 87.300 euro. Harremanetarako zenbakia, 658 089 380.

**Lan-eskaintzak**

• Pertsona bat behar dugu ume txiki bat zaintzeko Lasarte-Orian, astelehenetik ostegunera 17:30etatik 19:30era. Interesa dutenek deitu honako telefonora: 699 243 108.

**Lan-eskariak**

• Ingeleseko klase partikularrak ematen ditut. Harremanetarako telefona: 693 60 12 22.

• Pertsona adinduek eta gaixok zainduko nituzke. Pertsona espezializaduna eta tratua onekoa. Harremanetarako zenbakia, 680 983 527 (Carlos)

• Bigi garbiketarako enpresa eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko prest (alfonbrak, etxeak, bulegoak...). Deitu eta eskatu aurrekontuak konpromezurik gabe. Harremanetarako telefonoa: 638 944 604 eta 695 708 271.

**Bestelakoak**

• Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa eskaintzen da. Interesatua bazaude maketa bat entzungai daukat. Harremanetarako telefono zenbakia, 690 784 113.

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858  
Geltoki kalea 4  
txintxarri@ttakun.com  
www.txintxarri.info  
www.txintxarri.iragarkilaburak.com

Oharrak Txintxarri agertzeko asteazken eguerdirako helarazi behar dira bertara. Iragarri laburren ataldean agertzeko (papereko edizioan) astearte goizerako.

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria. 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: S5513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# Danok Kidek ebaluazio ona egin du Zinema Zikloari buruz

## IV. Musika Topaketen barruan, Santa Zezilia abesbatzaren kontzertua

TXINTXARRI

Astelehenean Danok Kide Guraso elkarteak antolatutako V. Zinema sozialeko zikloaren aurtengo azken saioa burutu zen eta ebaluazio ona egin dute zikloaren antolatzaileek.

Antolatzaileen arabera, 70tik 80ra pertsona hurbildu dira astelehenero Manuel Lekuonako aretara eta oso pozik agertzen dira aurreko edizioetako ikusle kopurua mantendu dutela. "Nahiz eta filmearen ostein, zenbaki hori pixka bat murriztu", azpimarratu dute.

Hitzaldien maila eta jendearen harrera ere aipatu digite. "Orokorrean hizlariek oso ongi azaldu dituzte elkarre bakoitzeko egitekoak eta bukaera gainera jendeak ere galderak egiten zizkien, batez ere, organo donazioaren gaia jorratu zen egunean," esan digite.

"Hitzaldi aretotik areto nagusirako aldaketa ere azpimarratu behar dugu. Onera izan da. Jendea erosoago egon da. Hala ere, guk beldurra genuen. Hitzaldietarako ikusleak sakabanatuak egotearena hotzegia zela pentsatzen genuen, baina hobetuta izan da," onartu digite.

Pena bakarra ziklora doan gazteen kopurua murrizta izatea dela adierazi digite.



Herritar ugari bildu da astelehenero Zinema Soziala Zikloko saioetara eta horregatik pozik agertu dira antolatzaileak.

Gainera, hurrengo zikloetarako gaiak pentsatzen hasi direla ere aipatu digite, "jendeak gai tristeak aukeratzen ditugula esan digu, baina eguneroko gaiak dira eta ildo beretik lanean jarraituko dugu."

Eta, era berean, eskerrak eman nahi dizkiote Udala eta kultur etxeko arduradunegi emandako laguntzagatik.

### IV. Musika Topaketak

Bestalde, gaur, IV. Musika Topaketen saio berria dago.

Arratsaldeko 19:30ean, Santa Zezilia abesbatzak beteko du musikaz. Ama Brigitarren komentuko kaperak.

Donostiako abesbatzak gaur burutuko duen egitarauan Purcell eta Kvernoren abesti erlijiosoak eta abesti herrikoiak, Aita Donostiaren *Iru txito*, Sorozabalen *Maite* edo Zubizarretak egindako *Ama begira zazu* abestiaren moldaketa esate baterako entzun ahaliko dira.

Hainbat lehiaketa eta jaialdietan parte hartutako abes-

batza dugu gaurkoa, hala nola, Antiguako Lehiaketa edo Errenteriako Musikasten.

Honetaz gain, 1928an sortu zenetik, abesbatzak hainbat aldaketa bizi izan ditu, azkenekoa urte hasieran izan zen, zuzendari aldaketa. 13 urtez Santa Zezilia abesbatza zuzendu ostein, Javier Muguerzak Kepa Martinez de Albenizi lekua utzi zion.

Hilabete gutxi hauetan, abesbatza eta zuzendariak lan izugarria egin dute. Beraz, disfruta dezagun. •

SAN PEDROAK 2009

## Herritarrek ideia gutxi igorri dituzte

Denen gustuko San Pedro jaiak antolatzeko asmoz, Lasarte-Oriako Gazteria eta Festetako sailak parte hartzeko aukera eman die aurten ere herritarrei proposamenak eginez.

Gazteria eta Festetako batzorde burua den Jesús María Zaballosek azaldu duen moduan lasarteoriatarrek herriko festetan disfrutatu nahi dituzten ekintzak azaltzeko modua da hau, "hiritarren parte-hartzerako bide bat da, guztion artean San Pedro jaiak antolatzeko".

Guztira sei proposamen jaso ditu Gazteria eta Festetako sailak. Horiek aztertu eta gauzatzen saiatuko da. Era berean, iazko zenbait proposamen berreskuratu eta martxan jartzen saiatuko da ere. "Ekimen hau martxan jartzen dugun bigarren aldia da eta partaidetza joan den urtekoa baino handiagoa izatea espero genuen, inplikazioa aipagarriagoa espero genuen", gaineratu du Zaballosek.

"Gure ideia kultura parte-hartzaile bat sortzen oinarritzen da eta, horretarako, tankera honetako dinamikak ezartzen joango gara. Bide ezberdinak dira martxan jartzen ari direnak, esaterako, postontzi berdeak, Tokiko Agenda 21, ideien lehiaketa, udal aldizkaria edo ekimen hau bera, baina hiritarren partaidetza ez da guztiz gauzatu oraindik", atxiki du Gazteria eta Festetako batzorde buruak. •

ARANTZAZURA IBILALDIA

## Apirilaren 4an burutuko da

Donostiako Elizbarrutiak antolatuta eta *Familia gara, familia gara* lelopean, apirilaren 4an, Erramu bezperan, ibilaldia egingo da Arantzazuko santutegira.

Lasarte-Oriako antolatzaileek adierazi dutenez, autobusa goizeko 07:45ean irtengo da Biyak Bat jubilatuaren egoitza aurreko geltokitik, Oñatira iritsi eta 9:30etan abiatuko dira ibiltariak Arantzazura.

Ibilaldian parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute. Horretarako parrokiko bulego zaharrera hurbiltzea besterik ez da, astelehenetik asteazkenera 19:30etatik 21:00etara. Zumaburu elizako bulegoan ere izena eman daiteke astelehen eta asteartean 20:00etatik 21:00etara.

Era berean, izena ematera-koan autobus bidaia ordaindu beharko dela jakitera eman dute, 13 euro. •

## Semblante Andaluzek bere urteurrena ospatuko du asteburuan



Bazkide taldea bildu zen asteazkenean *Sevilla reza cantando* filma ikustera.

Hamazazpi urte dira Semblante Andaluz elkarteak atek ireki zituela eta urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu astebururako.

Hala ere, ospakizunen hasiera asteazkenean izan zen. Semblanteko egoitzean *Sevilla reza cantando* filma ikusi zen.

Pascual Gonzalez eta *Cantores de Hispalis* taldeak, besteak beste, Sevillako Lope de Vega antzokian eskainitako zuzeneko kontzertua eta Sevillako Aste Santuko irudiak nahastean dituen pelikulaz gozatzeko aukera izan zuten hurbildu ziren bazkideak.

### Asteburuko ekitaldiak

Gaur, Ander Izagirrek *Cuidadores del Mundo* diaporama eskainiko du 18:00etan. Eskal Herriko natura zaintzen saiatzen diren pertsonaiak ezagutuko dituzte elkartera

hurbiltzen diren herritarrak. Ostein, luntxa prestatuko dute.

Bihar 11:00etan, bazkide eta gonbidatuentzat andaluziako produktu tipikoak dastatzeko aukera egongo da antolatu duten luntxean.

Arratsaldean, berriz, 18:00etan elkarteko *Amigos del Sur* taldeak kontzertua eskainiko du. Sevillan, fandangoak edo buleriak, bertan dauden guztiak dantzan jartzeko asmoarekin.

Igandean, 14:00etan bazkari herrikoia antolatu dute elkartean.


Eta, arratsaldean XVII. urteurreneko ospakizunei amaiera emateko, *Golletek* aurkeztua faralae jantzien desfilea egingo da. Desfilea girotzeko, elkarteko *Semblante Rociero* abesbatzak hainbat doinu eskainiko ditu. •



# Enpresak euskaraz jarduteko urrats berriak

Buruntzaldeko Udalek euskararen erabilera normalizatzeko hainbat egitasmo garatzen dute elkarlanean, eta horietako bat lan munduko euskararen erabilera sustatzea da.

Hori dela eta, Buruntzaldeko hiru enpresak, "Urdaitzeko Deman, Lasarte-Oriako U.S.S.I. eta Hemaniko AMR Refractorios", euskararen erabilera normalizatzeko euskarra plana abian jarzea erabaki dute, eta



BURUNTZALDEKO 13 ENPRESAK

1. Fagor Automation Berritola
2. S. Izaguirre
3. Fagor V. Luzuriaga
4. ADURIZ de Lasarte
5. Tximela
6. Orona
7. Solak
8. MSI
9. Latz
10. Hator
11. AMR Refractorios
12. DEMAN
13. TSSET autobusk



Udalerako eta enpresaren ordekaririk, hitzarmena sinatzeko ekitaldian.

Buruntzaldeako udalak 2005ean hasi zituen enpresen lan euskarra planak sustatzen, eta barrezkerio egindako lanaren erabilera normalizatzeko enpresa planetan murgilduta.

Udalen sustapenak plana abian jartzen duen enpresari kostuaren 2/3 bermatu nahi dio, 3.500 euroko topearekin. Eusko Jaurlaritzak Lan-Hitzen bidez eskaintzen dituen diru laguntzen osagarri izan nahi du. Udalak, behin bakarrik lagunduko du enpresa, diagnosiak eta lehenengo urteko implementazio-arteak sortzen dituen gastuak arintzeko.

Asko dira euskararen erabilera normalizatzeko arrazoiak. Baita horretaz jabetuta erromka berriari aurre egin ditzaten gure inguruko establezimendu eta enpresak.

## Euskarra planetan duen hainbat enpresa

- Apsare
- Apurtoneri
- CCOO Euzkadi
- Donostia Trambia Kompania
- EMAS Fundazioa Social
- Epuzkoako Merkatarien Elkartea GUREAK
- Mica Fundazioa
- Pasabea Portua
- DEGESIA
- Elbar Futbol Taldea
- Arabako Abokatuaren Elkartea GEGASA
- Bilberrak
- Bilboko Portua
- Bizkaiko Gariako Parterruergoa EDESA
- GUGENHEM
- UGT JUVENTUD
- UNESCO Etxea

## Euskararekin zeu irabazle

**Kalitzaitea:** Enpresak eskaintzen duen zerbitzuak kalitatez irabazleko hitzuntzen aldagaita kontuan izanez gero. Berrikuntza dakar hitzuntzak modu egokian kudeatzeko.

**Bezeroak:** Gizartea gero eta eskualdunagoa da. Enpresako bezero eta hornitzaileen artean gero eta gehiago dira euskarra dakitena eta egiten diren zerbitzuak kalitatez irabazleko hitzuntzen aldagaita kontuan izanez gero. Berrikuntza dakar hitzuntzak modu egokian kudeatzeko.

**Erantzukizun soziala:** Euskarak Euskal Herriko berantiar hitzuntza izateko gaitasuna du.

## Euskara sarean

Errotulu batentzako diru-laguntzak eskatu nahi dituzula, eobia euskaraz zerbitzuak eskaintzen dituen zerbitzu-taldea bateren baten beharra duzula, eta astirik gabe zabiltzula bertara joateko? Hemendik aurrera hori ez da oztopo izango. Buruntzaldeko euskaraz zerbitzuak [www.buruntzalde.org](http://www.buruntzalde.org) Euskararen erabilera normalizatu nahi duten merkatarik, ostalarik, zein gainerako enpresa txiki-taldea auradunek aukera izango dute, saguko klik batez, zerbitzu guztiariaraino helzeko.

Gainera, Buruntzaldean euskararen normalizazioaren inbentario egiten diren beste hainbat gauza aurkituko ditugu gainerako interes duen edozein herritarrek. Berriren eta garatzen paingoa den tresna da. Denona eta denontzat.

## Enpresen eskura

Lan mundua atalcan Buruntzaldeko enpresentzat interesgarriak izan daitezkeen berriak, ereduak, hiztegiak, eta abar.

## 1.- Lanean euskarra indartzen

Euskaraz dagoen softwarea erabiltzeko tresnak aurkitu daitezke Interneten. Hurrengo hainbat ereduak, hiztegiak, eta abar.

baiza gaitzen inguruko Lan-talcan, zein antzerako web-guneekin lotzeko estekak ere.

## 2.- Dirulaguntzak baliatuz

Udalek, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak euskaraz zerbitzuak eskaintzen dituzten dirulaguntzen informazioa.

## 3.- Buruntzaldeko lan munduko euskarazko bulefina

Buruntzaldeko euskaraz zerbitzuak eskaintzen dituzten ekintza-puntualen berri izateko.

**Kontsumitzaileen eta enbiziak** erabilera normalizatzeko neurriak hartu dituzten zenbait frankizia enpresa.

- Beritika
- Euzkeli
- Forum
- Banboa
- Bilbao Bizidala kutxa
- EuzkadiKutxa
- DonostiaKutxa
- FNAC
- Masimo Duti
- Oyaho
- Pull and Bear
- Sabaco
- Stradivarius
- Toys "R" us
- Alcampo

Kiroltako agenda

**FUTBOLA I**

**Larunbata 28**

**10:30ean**, Ostadar-Aförga (Emakumezkoen Kadeteak F-11, txapelketa fasea) Michelinen.  
**14:00etan**, Lengokoak-Ostadar (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Cesar Benito, Donostian.  
**15:30ean**, Iintxa-Ostadar (I. Jubenila, igoera fasea) Bikuña, Legazpin.  
**15:30ean**, Texas Lasartearra-Urnieta (I. Jubenila, kopa) Michelinen.  
**17:15ean**, Ostadar-Ordizia (II. Erregionala, igoera fasea) Michelinen.

**Igandea 29**

**10:30ean**, Ostadar-Zumaiako (Kadeteen Ohorezko maila, kopa) Michelinen.  
**10:30ean**, Lagun Onak-Ostadar (Infantil Txiki Kopa) Garmendipe, Azpeitian.  
**15:30ean**, Vasconia-Ostadar (Emakumezkoen Liga, kopa) Martutenen.  
**15:30ean**, Eibartarrak-Texas Lasartearra (II. Erregionala, kopa) Unbe Inf, Eibarren.

**FUTBOLA II**

**Larunbata 28**

**09:30ean**, Zarautz-Lasarte BHI (Infantila eskolartekoa, txapelketa fasea) Asti-Txiki, Zarautzen.

**FUTBOLA III**

**Igandea 29**

**10:00etan**, Niasa-Corpa-Cafes Saimaza (III. Maila) Zubietan.

**ARETO-FUTBOLA I**

**Larunbata 28**

**17:45ean**, Aldaz H.K.-Euskal Sofa Inter-UPV (Euskal Liga) Kiroldegian.

**HERRIKO TXAPELKETA**

*Michelin edo frontoian*

**10:00etan**, Okela-ISU Leihoak  
**10:50ean**, Mayi-Buenetxea  
**11:40ean**, Obelix-Oria krist.  
**12:30ean**, Ainhoa-Epel  
**13:20ean**, Tragoxka-Viña del Mar  
**14:10ean**, I.O.B. H.K.-Izarra  
**15:00ean**, Lurra XXI-Jordi

**Igandea 29**

**12:00etan**, Debarrena-ISU Leihoak (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Eibarko unibertsitate Laborala.

**HERRIKO TXAPELKETA**

*Michelin edo moduluan*

**10:00etan**, Izkia-Biyona  
**10:50ean**, Ilargi-Katanga  
**11:40ean**, Morrison-Danena

**SASKIBALOIA I**

**Larunbata 28**

**16:00etan**, C. D. Internacional B-

Ainhoa (Gizonezko seniorrak) Mons kiroldegia, Donostian.

**SQUASH I**

*Kiroldegian, 18:00etatik aurrera*

**Ostirala 27**

Diego Barrasa-Alberto Udabe-Xabier Amiano-J. R. Urruzola

**Astelehena 30**

Agustin Erkizia-Iker Cañedo Julen Vega-Txema Valles

**Asteartea 31**

Iñaki Garcia-Aitor Artola Aitor Reyes-Kinin Calvo

**Asteazkena 1**

Jose Antonio Ramos- D. Barrasa Alberto Udabe-Xabier Amiano

**Osteguna 2**

J. R. Urruzola- Agustin Erkizia Iker Cañedo-Julen Vega

**PALAI**

**Larunbata 28**

*XV. PALA TXAPELKETA*

*Michelingo frontoian*

**15:00etan**, X.Etxezarreta eta Haritz Urdanpilleta-Iñaki Lizaso eta Alain Etxebeste

**Igandea 29**

*XV. PALA TXAPELKETA*

*Michelingo frontoian*

**09:00etan**, Oskar Lazkano eta I.Arluziaga-Bernaitz Odriozola eta Santi Martin

**09:45ean**, Imanol Bardaji eta A.Zubizarreta-Bernaitz Odriozola eta Santi Martin

**10:30etan**, Imanol Muxika eta Unai Salaberria-Ibon Azkonoibeta eta Eneko Iradi

**IGERIKETA I**

**Larunbata 28**

**16:00etan**, Buruntzaldeako Igeriketeta Taldeak Kirol Zehaztasun Ligako 4. jardunaldian parte hartuko du, Ordizian.

**BOLA-JOKOA I**

**Igandea 29**

**10:00etan**, Ostadarreko bolo sailak lehendakari txapelketan parte hartuko du, Zerainen.

**JUDO I**

**Igandea 29**

**11:00etan**, Beñat Elizalde 23 urte azpiko Espainiako txapelketa Iparraldeko kanporaketan lehiatuko da, Zaragozan.

**ATLETISMO I**

**Larunbata 28**

**09:30ean**, Atletismo pista. LH3 eta LH4 mailetako Buruntzaldeko Topaketa dago.



Xabier eta Mikel Arruti, 6. eta 7. arraunlariak dira. Maila ona erakutsi zuten Ur-Kirolakeko beteranoek Tamesis ibaian.

# Xabier eta Mikel Arrutiren taldea bikain aritu da Londresko proban

**I** 35-40 urte artekoen estropadan hirugarrenak izan ziren  
**I** Parte hartu zuten 183 zortzikoaren artean 26. sailkatu ziren

Oso pozik itzuli dira Xabier eta Mikel Arruti Londrestik, bertako "The Head of the River Race" proban parte hartu eta gero. Batetik emaitza oso ona lortu dute, euren mailan hirugarrenak izan dira eta bestetik asteburu desberdin baina ederra pasatzeko modua izan zuten Britainia Handiko hiriburuan.

Tamesis ibaian aurreko igandean burutu zen beteranoen estropadan guztira 183 zortziko atera ziren eta Ur Kirolak-en ontzia 26. iritsi zen helmugara: Zortzi arraunlari eta lemaizainak, 20 minutu 44 segundu eta 65 ehuneko behar izan zituzten erlojuaren kontra ia zazpi kilometroko ibilbidea egiteko.

Dena den esan daiteke podium-a egin zutela hementxo arraunlariek euren mailan, 35 eta 40 urte arteko beteranoen artean hirugarren izan

baitziren 14 ontziren artean. Emaitza bikaina bezaz, euren zaletasunaren poderioz, azken hilabeteotan elkarrekin astean behin entrenatu duen taldearentzat.

Beteranoen Head 2009ko irabazleek, Imperial College BC taldeak, 19:40.12ko denbora egin zuen eta Ur Kirolak-ekoen mailan 35-40 urte artean irabazi zutenek, Auriol Kensington taldeak 20:08.67, hemengoek baino 36 segundu gutxiago. Sailkapen orokorrean zortzigarrenak izan ziren hauek.

**Errepiatzeko modukoa**

Arraun olinpikoan probarik entzutetsueneko esperientzia ederra izan da taldearentzat, ez zuten arazorik ez ezuste-podium-a egin zutela hementxo arraunlariek euren mailan, 35 eta 40 urte arteko beteranoen artean hirugarren izan da. "Agian estropada berdina

ez, beste batzuek probatu daitezke, baina plana bai izan da errepiatzeko modukoa" esan digu Xabier Arrutik.

Vigoko taldea 24. postuan sailkatu zen Ur Kirolak-eko taldea baino bi postu eta bi segundu lehenago. Bestalde, Ur kirolak elkarteko beste taldea, 109.a izan zen 22:16.25 denborarekin.

Proba Tamesis ibaian Mortlake eta Putneyko zubien artean burutzen da urtero, Londresko hiriburuaren bihotzean. 1976. urteaz geroztik, proba nagusian gehienez 420 ontziri uzten zaie parte hartzen, beraz guztira 3.780 arraulari izan ziren larunbatean, 9 ontzi bakoitzeko. Igandean, beteranoen proban, 183 ontzi eta beste 1.647 kirolari atera zirenez guztira Europa osoko bost mila arraunlaritik gora aritu dira bi egunotan proba herrikoi honetan. •

# Pili Bodegas atletak irabazi du Donostiako Udaberri Saria

Donostiarrak Atletismo elkarrekin antolatzen duen VII. Udaberri Sarian lehen emakumezkoa izan zen Pili Bodegas Lasarte-Orian bizi den donostiarrak. Igandean jokatu zen lasterketa herrikoian 1.200 lagunek hartu zuten parte eta guztien artean azkarrena Kamel Ziani izan zen. 10.000 metro egiteko 30 minutu eta 42 segundu eman zituen eta

David Martin lasarte-oriarrak 2007tik zuen marka hobetu zuen. Martinek 31:39 denbora egin zuen eta bere errekorrak bi urte iraun du.

Emakumeen mailan atera ziren 200 laguneren artean azkarrena Pili Bodegas izan zen, 38:08 denborarekin. Iaz hirugarren izan zen eta irabazteko gogoarekin atera zen igandean. Donostiarrak,

proba antolatzen duen Klubea da Pili Bodegas atleta.

Dena den, Udaberri Lasterketan gauzarik aipagarriena parte hartze zabala izan zen. Sekula baino korrikalari gehiago izan ziren irteera puntuan. 1.200 dorsal banatu zituzten antolatzaileek, mila korrikalari baino gehiagok parte hartu zuten eta 900 inguru iritsi ziren helmugara. •

Egunero

**Erakusketa**

ANGEL NÚÑEZ donostiarraren Paisaia begiralea argazki erakusketa ikusgai egongo da. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.



Ostirala, 27

**Bideoforuma**

CAMINO filma eskaini eta gero, Jesus Muñoz psikologo eta psikoterapeutarekin egingo da solasaldia. Emakumeen Zentro Zibikoan, 16:30ean.

GAZTELANIAZ.

**Kontzertua**

DONOSTIAKO SANTA CECILIA ABESBATZAK kontzertua eskainiko du Danok Kideren IV. Musika Topaketan barruan. Brigitarren komentua, 19:30ean.



Larunbata, 28

**Kontzertua**

AURORA PARRA sopranoak, J. PEREZ DE AZPEITIA pianojolea



*Ohean euskaraz Korrikaren alde*

OHEAN antzezlanaren Maskarada taldearen eskutik Korrika kulturalaren barruan.

Taberna batean ezagutu eta handik ordu batzuetara, gizon batek eta emakume batek gela hartzen dute hotel merke batean sexu gau bat pasatzeko elkarrekin. Ez dakite ezer elkarren gainean, ezta izena ere, eta egun horren ostean ez dute berriro elkar ikusiko. Sexuaren ostean arrotz bi hauek ohartzen dira halako kimika bat sortu dela haien artean.

GAUR, KULTURETXEAN  
22:00ETAN, EUSKARAZ

ren laguntzaz, kontzertua eskainiko du. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.

edo arin arinak igandea ongi hasteko. Brigitarren komentua, 12:30ean.

Igandea, 29

**Kontzertua**

TXISTU KALEJIRAREN ostean, Errenteriako Udal Txistulari Bandak kontzertua eskainiko du. Biribilketak, alboradak

**Zinea**

WINX: ERREINU GALDUAREN SEKRETUA filma eskainiko da haurrentzako zinea atalean. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, EUSKARAZ

SEMBLANTE  
ANDALUZ ELKARTEKO  
XVII. URTEURRENA

Ostirala, 27

**Hitzaldia**

Ander Izagirrek Cuidadores del mundo diaporama eskainiko du elkarteke XVII. Urteurreneko ospakizunen barruan. Ostean, luntxa egongo da elkartearen bertan, 18:30ean.

Larunbata, 28


**Kontzertua**

Amigos del Sur taldeak emanladia eskainiko du elkarteke XVII. Urteurreneko ospakizunen barruan. Semblante Andaluz Elkartearen, 18:00etan.

Igandea, 29

**Desfilea**

Golletek aurkeztua eta Semblante rociero abesbatzala lagunduta, faralae jantzi desfilea elkarteke XVII. Urteurreneko ospakizunen barruan. Semblante Andaluz Elkartearen, 18:00etan.



Oharrak

**Etixeraten elkarretaratzea**

Hileko azken ostiralero bezala, Lasarte-Oriako Etixerate kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

**Odol ateratzeak**

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkazezina da eta odol falta dago!

**Alboka abesbatzaren Asanblada**

Alboka Abesbatzak jakin arazten du, martxoaren 30ean astelehena, urteroko asanblada egingo duela Arantzazuko Amabirjinaren eliza azpiko kalean. Lehenengo deialdia 19:30etan izango da eta bigarrena 20:00etan. Bazkide eta

abeslariak erregutzen zaie puntual iristea.

**Korrika 16**

Korrika 16a Lasarte-Oriatik apirilaren 2an pasako dela eta, nahi duen guztiak Km-alar dezaie laguntza baten truk. Interesa duzuen talde, erakunde edo besteren batek Muntteri AEK euskaltegia dei dezake edo bertara jo dezake. 943 37 28 63.

**Materiala salgai**

Korrika 16ko materiala eta arropa salgai dago dagoeneko Muntteri-AEK euskaltegian eta Urruzola mertzerian.

**Galdutako txaketa**

Martxoak 20ean marrazki beltzdund txaketa gris bat galdu nuen Beko Errota edo Kale Nagusia inguruan. Norbaitek aurkitu badu itzultzea eskertuko nioke. Harremantarako zenbakiak, 620 071 384 eta 943 370 438 (Maite).

**Begirale izateko**

Ttakunek udaran antolatzen dituen udaleku ezberdinetan (txokoak, kanpaldiak...) begirale izateko izena emateko epea zabalik dago maiatzaren 15a arte. Interesatuak Ttakunetik pasa (Geltoki kalea 4), telefonoz deitu: 943 371448 edo mezua bidali: aisia@ttakun.com.

**Kolon minbiziaren proba**

Lasarte-Oriako Osasun Zentroa eta Donostia Ospitaleak doan eskaintzen ari dira kolonko minbiziaren antzemateko goiztiarrerako proba bat 50 eta 69 urte arteko emakume eta gizonezkoen artean. Hauei guztiei probarako gonbidapen personala bidaliko zaie postaz. Udaletik proiektu honetan parte hartzea animatzen zaituztegu, izan ere, garrantzitsua iruditzen zaigu kolonko minbiziaren antzemateko eta prebenitzeko.

**Itzalaldia**

WWF-Adena erakundeak Planetaren ordua izeneko ekimena martxan jarri du. Modu honetan hiritarren, erakundeak, instituzioen, gobernuen... inplikazioa lortu nahi da aldaketa klimatikoaren kontra. Proposamena da datoren larunbatean, martxoak 28, ordubetz, 20:30etik 21:30era, monumentu eta eraikin nagusien argiak itzaltzea mundu osoan. Lasarte-Oriako Udalak ekimen honekin bat egitea erabaki du, jakin baitaki gizarte honetako erronka nagusienetako bat dela aldaketa klimatikoaren kontrako borroka.

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858  
txintxarri@ttakun.com  
txintxarri@txintxarri.info  
www.txintxarri.info

Eskutitzak

**Arranbide eta Oztaraneko bizilagunei**

Antzinako ohitura zen "ura doa" oihuaren ostean, etxeko andereek gauean zehar edo goizean betetako pixontziko edukia leihotik behera botatzea. Zorigaitzokoa leiho azpiti momentu horretan igitzen zena. Eta orduaren arabera, egunsentian batez ere, ibilaldiak oztopo lasterketa zirudien, non lirain eta azkarrenak soilik etxera onik iristen baitziren.

Gaur egun ditugun aurrerapenekin, ohitura horiek zibilizatu gabeko, kultura gutxiko edo osasun arau minimoak ere ezagutzen ez zituen jendearen direla uste dugu. Hori gaingidua dago. Dagoeneko ez da "ura doa" oihukatzen eta pixontzia leihotik behera husten.

Baina ez da egia egotera hori gaingiditu dugunik. Desberdintasun txikiren bat badu, baina azken finean gauza bera da. Gaur gure artean badago jendea, bizilagunekiko errespeturik ez duena eta bere animaliatxoei hesteak edonon husten uzten dizkietenak. Berdin dio espaloi erdian, portal baten ate aurrean edo denda baten sarreran izan. Berdin die. Eta gainera ez dute jakinarazten, "kaka doa" esanaz. Hor uzten dute eta badoaz, bere ardura ez balitz bezala. Zer pentsatuko zenuek bizilagunak pixontzia leihotik behera hustuko balu? Momentu horretan harrapatzen ez baduzu, ordu batzuk beranduago gorotzak espaloi erdian aurkituko zenituzke. Paseatzera goazenok aurkitzen dugun gauza bera: gorotza. Ez dugu aurrera egin, ez gara zibilizatu eta ez dugu osasunean pentsatzen, hau guztia argi dago.

Eta errua ez da animalia gaixoarena. Nahikoa du gaixoak horrelako arrastak kalean axolarik gabe uzten dituen jabea pairatzarekin. Graziarik egingo al lioke guk utzitako orrigarrien bat bere portal aurrean aurkitzeak?

**Oztabide auzo-elkartea Arranbide-Oztaran**

# Mundua konpontzea posible al da?

■ Era guztietako langileek irtenbideak ematen saiatuko dira *Lekuona tailer*rean

**TXINTXARRI**

Apirilaren 4an Manuel Lekuona Kultur etxea lantoki bateko tailerra bihurtuko dutenaren zurrumurrua iritsi zaigu aldizkarira.

Ez izutu Ttakun Kultur elkarteak eta Bertso Eskolak urtero antolatzen duen bertso saioa baita. Iaz hegazkin berezi bihurtu zen kultur etxea Barrenak astinduz saioarekin, eta aurten "mundua konpontzeko tailerra izango da," azaldu digute Mailu Arruti Ttakuneko arduradunak eta Joxe Kruz Labaka Bertso eskolako ordezkariak, "lan eskakizun ezberdinak iritsiko dira Lekuona tailerrera eta bertan irtenbidea bilatuko zaie".

Mundua konpontzeko tailerra emanaldiak bertsoarekin izango du bere ildo nagusia. Baina Joxe Kruzek zerbait zehaztu digu, "b erasoak izango dira bai, baina beste kultur diziplinekin nahastua, hala

nola, antzerkia edo musika. Eta, era honetara, bertsoarekin azken aldia hartu dituen bide berriak ikusi ahal izateko aukera paregabea egongo da herrian."

Era berean, musika arloan, azken urteetan egiten diren nahasketez gozatu ahal da, hala nola, erritmo berrietara egokitzen diren instrumentu tradizionalen doinuak eta beste herrialdeetako erritmo biziak.

"Instrumentu modernoek jotako bertso doinuak edo herri kantauak modu ezberdinean kantatuak," azpimarratu dute.

## Era guztietako langileak

Profesionalak eta zaletuak elkarrekin lanean ikusi ahal izango dira tailer berezi honetan.

Punta puntako bertsolari eta antzezle diren Andoni Egaña, Xabier Paya, Aitziber Garmendia eta Egoitz Lasarekin batera, herriko bertso eskolako kideak eta antzerki

eskolako gazteak ikusiko ditugun lanean.

Kultur etxeko oholtza gainean, mundua konpontzeko irtenbide bila herriko hainbat talde ere egongo da. "Herriko artistek beraien berrikuntzak eskaintzeko ekitaldia da hau," azaldu digu Ttakuneko arduradunak.

Baina, hauetaz gain, langile

bereziak ere egongo dira, ikusleak. "Ikusleak saioaren parte izatea nahi dugu eta horretarako, hainbat sorpresa prestatu ditugu," aipatu digute.

Beraz, prest egon apirilaren 4an arratsaldeko 19:00etan Mundua konpontzeko tailerren barre, negar eta lan egiteko aukera izango baituzue. •



lazio Barrenak astinduz saioan, Xabier Payak ikusleen barre eta algarak sortu zituen, ea aurten ere horrela den.



T  
A  
B  
E  
R  
N  
A

**Razioak**  
**Entsaladak**  
**Sandwichak**  
**Hanburgesak**  
**Bokatak**  
**Pizzak**



**EGUNEKO  
MENUA**



**Plater konbinatuak**  
**Oilasko erreak**  
**Otorduak enkarguz**  
**Postreak**

**ERAMATEKO ERE PRESTATZEN DUGU**

Kale Nagusia 71-73 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 369341 // 676 906121